

**BIZKAIA**

**OPEN FUTURE\_**

**OSI EZKERRALDEA ENKARTERRI**

**CRUCES ERRONKA (GURUTZETAKO**

**UNIBERTSITATE-ERIETXEA)**

Erronkaren oinarriak

# “Bizkaia Open Future\_ OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces Erronka (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea)” erronkaren oinarriak

## 1. Erronkaren helburua

“Bizkaia Open Future\_ OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces Erronka (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea)” agiri honek OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-ek (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) Bizkaia Open Future\_ ekimenaren bidez gauzatutako talentu globaleko komunitateari jarri dion erronka konpontzeko proiekturik onenak aukeratzeko prozesua arautzen duten oinarriak ezartzen ditu.

Zehazki, erronka honen helburua Bizkaia 4.0 Immersion Trip-en parte hartzeko 5 eta 10 proiektu artean aukeratzeko da, gero horietatik erronkako irabazlea eta finalistak hautatzeko.

## 2. Bizkaia Open Future\_

**Bizkaia Open Future\_** ekimena **Bizkaiko Foru Aldundiak eta telefónicak** sustatzen dute Bizkaiko Lurralde Historikoko (aurrerantzean “Lurraldea”) industria sektoreari 4.0 industriarantz aldatzen laguntzeko. **Bizkaia Open Future\_** industria arlo guztiari zuzenduta dago eta berebiziko arreta ematen die Bizkaian lehentasuna duten sektoreei: aeronautika, automozio, energia... **Bizkaia Open Future\_k**, halaber, bertoko eta nazioarteko ekintzailtza-talentu berriaren eta Lurraldeko industria enpresen arteko lotunea izan nahi du.

**Bizkaia Open Future\_**, alde batetik, gune fisiko baten bidez bideratzen da eta, bestetik, gune birtual baten bidez. Gune fisikoa, *Crowdworking Ilgner* delakoa, *BIC Bizkaia Ezkerraldea-ren* (lehengo CEDEMI) instalazioetan dago kokatuta, Barakaldon, eta erreferentziako lekua izan nahi du Berrikuntza Irekiaren Garajea kontzeptu berria erabiliz, orientabide irekia eta nazioartekoa duten 4.0 industriaren proiektu teknologikoak sustatzeko. Bertan hainbat jarduera burutuko da startupek eta berrikuntza-talentuak beren ekimenak bultzatu eta gara ditzaten, ETEek bilakatuz

joateko negozio-eredu berriak ezagutu ditzaten eta enpresa erreferenteek beren negozioak bilakatzeko eta hobetzeko ezagutza eta teknologia berriak eskura ditzaten.

**Bizkaia Open Future**\_ren jarduerak *openfuture.org* plataformaren bidez burutuko dira, **Telefónica Open Future**\_k inbertsiogile, startup eta ekintzailetza-ekosistemako beste eragile batzuentzat daukan elkargune global eta birtualean.

### 3. Berrikuntza irekiko programa

Bizkaia Open Future\_6 programaren inguruan egituratzen da: Sentikortze Programa, Trebakuntza Programa, Startupak Bizkortzeko Programa, ETEentzako Negozio Ereduetan Berritzeko Programa, Berrikuntza Irekiko Programa eta Prototipo eta Pilotuen Programa.

Oraingo erronka hau Berrikuntza Irekiko Programaren barruan dago eta bertan Lurraldeko enpresa erreferenteek negozio-erronkak planteatzen dizkiote komunitateari, 4.0 Industriaren teknologietan oinarritutako konponbideak bilatzeko. Esku hartzen dute ekintzaileek, startupek, ETEek, antolakunde eta erakundeek, unibertsitateek, teknologia zentroek... Egiatzko negozio-erronkak dira eta 4.0 Industriaren teknologietan oinarritutako konponbide berritzaileen bidez konpon daitezke.

Agiri honek OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-i (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) dagokion berrikuntza irekiko prozesuaren oinarriak arautzen ditu.

### 4. OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces (**Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea**)

OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces OSI EEC Osasun Antolakundea Eusko Jaurlaritzako Oosasun Sailaren menpean dagoen Osakidetza Sarearen Osasun Zerbitzuen antolakunde bat da. Osakidetzaren 2014ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez sortu zen, Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zerbitzu-antolakundeak eta Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea bateratuz. Haren erreferentziako geografia-eremua Oinarrizko eta Erietxeko osasun zerbitzuak ematen dizkien Ezkerralde-Enkarterriko 170.000 biztanle inguruk eta Urdulizko Erietxea osorik funtzionatzen hasi arte Erietxeko

osasan zerbitzuak ematen dizkion OSI Uribeko udalerrietako 215.000 biztanle inguruk osatzen dute.

Dena dela, bere zerbitzu aukera zabala eta konplexua dela-eta, OSI EECren eragin-eremua muga huetatik harago doa eta arreta ematen dio osasan-urgazpen konplexua behar duten hainbat pertsonari. Hor Gurutzetako Unibertsitate-Erietxeak erreferentziako zentro bezala dihardu Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Nazio Osasan Sistemarentzat, izan ere erietxean sartzen diren gaixoen %50 baino gehiago bere estaldura-eremutik kanpo dator.

Eraldatzeko daukan estrategiak osasan-antolakunde legez bere nolakotasuna zehazten du, lortu beharreko helburuak ezartzen ditu eta Xedea erabakitzen du: "Lanean ari gara herritarren osasuna hobetzeko, osasan-sistema jasangarria izan dadin eta gizartearentzat jakintza sortu eta transmititzeko".

## 5. Erronka

OSI EECK ezarritako erronkaren izenburua **"NOLA LAGUN DEZAKETE TEKNOLOGIA BERRIEK BIZI OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEN?** da eta jarraian azaltzen den beharrianari dagokio.

OSI EECK ezartzen duen erronka bizi-kalitatea hobetzeko bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea eta zabaltzea da.

### **Helburu zehatzak**

- Oso osasuntsuak ez diren ohiturak dituen biztanleria identifikatzea, haren ohiturak eta etorkizuneko bizi-kalitatea hobetzeko.
- Bizi-ohitura osasuntsuez informatzea.
- Nola lagun genezake bizi-ohitura osasuntsuak hartzen?
- Lehenengo sintomak ohartu orduko erreakzionatu beharraz gizartea kontzientziatzea.
- Gaixoak gaixo kroniko bihurtu daitezkeen saihestea, beren osasuna kontrolatzen eta bizi-ohiturak aldatzen lagunduz.
- Gaixoei zalantzak argitzea gaixotasunei dagokienez.

### **Testuingurua**

Osasunez ondo dagoen arren bere bizi-ohiturengatik etorkizunean gaixotasunak garatzeko arriskua daukan biztanleria identifikatzea. Horrela gaixotasunen agerpena atzeratu eta biztanleriaren osasuna hobetzea lortuko litzateke. Halaber, onuragarria izango litzateke osasun-sistemarentzat eta gizartearentzat, baliabide gutxiago kontsumituko litzatekeelako. Epe luzera zenbait gaixotasun desagertzea edo adinean atzeratzea lortuko litzateke.

Nola identifika genezake ohitura arriskutsuak dituen biztanleria? Nola jakin genezake zein diren pertsonen aldaketaren eragileak gaixotasunen agerpena eta bilakaera prebenitzeko? Nola lortu bizi-ohiturak aldatzea?

Lehenengo sintomak ohartzean biztanleria arriskuaz jakitun izatea funtsezkoa da etorkizun hurbilean gaixotasun larriagoak ez bilakatzeko edo garatzeko. Osasun-arazorik dagoela erakusten duten lehenengo aztarnak ohartu orduko funtsezkoa da arrisku-faktoreak ezagutzea eta bizi-ohiturak aldatu beharra dagoela jakitea.

Zer egin behar da arriskuak ikustarazteko? Nola lagun dezakegu arriskuan dagoen biztanleria osasun-langileek gomendatu ahalko dituzten tresna berriekin?

Zenbait gaixotasun izan dituzten gaixoen bizi-ohiturak aldatzeak aukera emango luke gaixotasun kroniko bat garatzea atzeratzeko edota ez larriagotzeko aukera emango luke. Ohitura-aldaketok onak izango lirateke gaixoarentzat eta baita haren senitarteko eta ingurukoentzat ere. Horrela gaixoaren bizi-kalitatea hobetzea eta osasun eta gizarte gastua murriztea lortuko litzateke.

Nola bideratu eta positibizatu gaixotasun bat agertzeak dakarren shocka? Nola lagun daitezke gaixo eta senitartekoak zalantzak argitzeko? Nola motiba eta susper daitezke gaixoak eta ondokoak.

### Adibidea

Kepak 30 urte ditu eta ez dauka gaixotasunik, baina haren bizi-ohiturak ez dira batere osasuntsuak:

- Erretzailea da (10-15 zigarro egunero)
- Egoneko lana du
- Lana amitutakoan lagunekin zerbait edatera joaten da
- Astebururo dauka ospakizuen bat
- Kirola gustatzen zaio, baina ikusteko soilik
- 40 urterekin Kepa enpresa medikuarengana joan da:
  - kolesterola altu dauka

- hipertensioa dauka
- 15 Kg-ko gehiegizko pisua dauka
- erretzeari utzu behar dio
- estresatuta dago

Medikuak ohiturak aldatzeko gomendatu dio, baina Kepak ez du minik eta ez du bere baitan arazorik somatzen. Ez da berriro itzuli familiako medikuarengana 50 urterekin bularreko minarengatik beldurtu den arte.

Medikuak diabetesa eta bularreko angina diagnostikatu dizkio. Une horretan gaixo kronikoa bihurtu da.

Ezustekoa eta erietxeko egonaldia pasatu ondoren alta jaso zuen. Alde egin baino lehen bizi-ohiturak aldatzeko oso gomendio garrantzitsuak eman zizkieten eta horrek eragina dauka bere jarduera fisikoan, dietan, gizarte harremanetan eta senitarte eta ingurukoetan.

Zenbait hilabete geroago Kepa hobeto dago, lasaitu egin da. Berak gomendatu dioten guztia egiten duela dio, baina emazteak ez dela egia ziurtatzen du.

Kepak egoera ulertu egiten du, baina larritasun edo aldaketen beharra gutxiesten du eta ez dago argi bere osasunari buruzko osasun gomendioak beteko dituen. Pilulak hartzen dituela dio, baina oso zaila gertatzen zaio lagunekin ez irtetea edo pauta batzuk jarraitzea. Arreta ematen dion erietxeko langileek ez dakite nola lagundu.

Kepa 30 urte dituenean identifika dezakegu? 30 urte dituenean bere bizi-ohiturak osasuntsuagoak diren beste batzuekin aldatzeko konbentzitu ahal dugu? Nola saihestuko dugu haren ohiturek patologia bat ekartzea? Nola ikusaraziko diogu bizi-ohitura osasuntsuagoak hartzeak duen garrantzia?

## Erronkaren norainokoa

Erronkaren helburua 5 eta 10 proiektu bitartean aukeratzea da, OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-ek (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) jarritako erronkari erantzunez Bizkaia 4.0 Immersion Trip-en parte har dezaten. Hortik geroago Erronkako irabazlea eta finalistak aterako dira.

### Bizkaia 4.0 Immersion Trip

Aukeratzen diren proiektuak Bizkaia 4.0 Immersion Trip saria irabaziko dute, Bilbo-Bizkaian (Euskal Autonomia Erkidegoa) 2017ko martxoaren 29, 30 eta 31n egingo den 3 eguneko bidaia (egun kopurua eta datak aldatu egin litezke beharrezkoa izanez gero).

Bizkaia 4.0 Immersion Trip elkar-sortze, aurkitze eta ikaste bidaia da eta aukeratutako proiektuek hurrengo jarduerak egingo dituzte:

- Elkar-sortze jardunaldi bat OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-en (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) (6 orduko iraupena gutxi gora behera). Bertan zehatz-mehatz ezagutuko dituzte enpresa erreferentea eta erronkaren arazo objektiboak eta antolakundeko profesionalekin batera lan egingo dute konpontzeko proposatu dituzten hobekuntzak bilatzeko.
- Bizkaiko erreferentziako erakundeekin biltzea, Lurraldeko industria eta berrikuntzarako ekosistema ahaltsua bertatik bertara ezagutzeko.
- Bertoko ekintzailtza-talentu eta startupekin bilerak egitea, konexioak eta lankidetzarako aukerak sortzeko.
- Kultura jarduerak, arte eta gastronomiarengatik ospetsua den Lurraldea ezagutzeko.

Bizkaia 4.0 Immersion Trip-en aukeratutako proiektuetan parte hartzeari dagokion kostua (bidaia, ostalua eta antolatutako jarduerak) Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du (parte hartzen duen proiektu bakoitzeko pertsona baten gastuak ordainduko dira).

#### Proiektu irabazlea eta finalistak

Bizkaia 4.0 Immersion Trip-en parte hartzen dutenen artean erronka irabazten duen proiektua eta finalistak aukeratuko dira, eta horiek Bizkaia Open Future\_ko Crowdfunding Ilgner-era joan ahalko dira, sartzeko baldintzak bete beharra izanik.

Erronka irabazten duen proiektuak hurrengoak jasoko ditu:

- Bere konponbidearen egiazko pilotu bat egitea bere antolakundearekin batera, Bizkaia Open Future\_ko Prototipo eta Pilotuen Programaren barruan. Antolakundeak, OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-ek (Gurutzetako

Unibertsitate-Erietxea), prototipoa diseinatzen lagunduko du, proiektua burutzeko beharrezkoak diren kontaktuak eta solaskideak eskainiz. Zehazki:

- Prototipoa garatzeko urtebeteko urgazpena.
- Antolakundeko berrikuntza taldeko teknikari bat esleitzea proiektuaren segimendua egiteko kontaktu legez.
- Antolakundeko osasuneko profesionalekin elkar-sortze saioak egitea, prototipoa iteratu eta amaierako proba egiteko.
- Berrikuntza Batzordearen (antolakundeko zenbait profesionalek osatuko dute, besteak beste kudeatzailea) segimendua proiektuaren garapena errazteko.
  
- Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa edo gauzazkoa, gehienez 20.000€-koa, proiektuaren gastuak ordaintzeko. Laguntza hau jasotzeko onuradunaren helbide sozial eta lantokiak Lurraldean eduki behar du, eta hurrengo kontzeptuetariko bat edo batzuk izango da:
  - Sozietatea eratzeko kapital sozialaren %50erainoko ekarpena.
  - "Bizkaia Open Future\_ko Prototipo eta Pilotuen Programa"-ren barruan lantzen ari den erronka irabazi duen proiektu pilotua garatzeari dagozkion kanpoko gastuak finantzatzeagatik konpentsazioa.
  
- Bizkaiko Foru Aldundiaren inkubagailuetan sartzeko kostuen konpentsazioa (lekuak alokatzea, joan-etorriak, sarbide-gastuak, etab.).
- Bizkaiko Foru Aldundiaik enpresa berritzaileen sorkuntza, inbertsioa eta proiektuen nazioarteratzea bultzatzeko dituen diru-laguntzak eskuratzeko aukera, beti ere proiektuak deialdiko baldintzak betetzen baditu eta aurreko puntuko ekarpenarekin ordaindu diren gastu justifikatuez gain gastu gehigarriak badu.

Erronka irabazi ahal izateko enpresak legez eratuta egon behar du eta adinez nagusiak direnek osatua; ez du deusezteko lege auzibidetan sartuta egon behar eta helbide soziala eta lantoki bat Bizkaian izan behar ditu. Bizkaitik kanpoko enpresa bada, Bizkaian enpresa erroldatu beharko du eta Bizkaian lantoki bat izan. Horretarako,



irabazlea dela jakinarazten denetik hilabeteko epea emango zaio (Bizkaiko Foru Aldundiak badauka inkubagailu sare bat eta bertan 3-5 urteko epean helbidera liteke). Azken batean, irabazle izateak dakartzan onurak gauzatzeko beharrezkoa da enpresa eratuta egotea eta Bizkaian lantoki bat izatea.

Proiektu irabazlea eta finalistak Bizkaia Open Future\_ko Bizkortze Programan sartu ahalko dira. Programa horrek 4 hilabeteko iraupena izango du eta helburua proposamena/konponbidea ontzen laguntzea eta enpresa proiektua sendotzea da. Bizkortze-prozesua malgua izango da (egoiliarra, presentziala, online) finalistaren egoeraren arabera. Finalista kopuru zehatza jasotako proiektuen kalitatearen arabera erabakiko da.

Bizkortze Programan parte hartzeko zenbait arau bete beharko dira eta etengabeko ebaluatze-prozesua egongo da. Arauak eta segimenduaren dinamika programaren hasieran jakinaraziko zaizkie parte hartzaileei eta alderdien artean kontratua sinatuko da bizkortze-prozesua zuzenduko duten arauen berri emateko. Ez dira estalita egongo programan parte hartzeko gastuak: joan-etorriak, ostatua, etab.

## 6. Parte hartzeko betebeharrak

Erronkan parte hartu ahalko du enpresa erreferenteak ezarritako erronka zatika nahiz osorik konpontzen lagun dezakeen proposamena daukan edozein ekintzaile, startup, ETE, antolakunde edo erakundek, esate baterako unibertsitateek, zentro teknologikoez, etab.

Sustatzaile bakoitzak proiektu banarekin parte hartu ahalko du, banaka nahiz beste batzuekin batera.

Proiektua sustatzen/ordezkatzen duen taldeko kide pertsona fisikoek, adinez nagusiak, izan behar dute, eta erantzunbeharrak hartzeko legezko gaitasuna eduki behar dute.

Hasieratik edo geroago baldintza hauetakoren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak erronkatik kanporatuak izan ahalko dira eta ezein zerbitzu jasotzeko aukera guztiak galduko dituzte, deialdi honen antolatzaileei ezer erreklamatzeko eskubiderik izan gabe.

Erronkan erregistratzean parte-hartzaileek ematen dituzten datuak egiazkoak izango dira eta, horrenbestez, erronkan parte hartzeko eta ezein zerbitzu hartzeko aukera guztiak galduko dituzte datu faltsu, oker edo osatu gabeak ematen dituzten parte-hartzaileek, jokabide horren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Parte-hartzaileak bere gain hartuko ditu erantzukizun horiek, deialdi honen antolatzaileak inolako kalterik gabe utziz.

Erronka honetan izena ematean parte-hartzaileak osorik eta erreserba edo baldintzarik gabe onartzen ditu oinarri hauetan agertzen diren terminoak.

Deialdi honen antolatzaileek eskubidea izango dute parte-hartzaileak ez onartzeko edo erronkatik baztertzeko, aurretiaz jakinarazi gabe, beren ustez iruzurrez, gehiegikeriaz edo programako izpirituaren, Legearen, hirugarrenen eskubideen edota fede onaren kontra jokatzeko badute, beti ere jokabide horren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Parte-hartzaileak bere gain hartuko ditu erantzukizun horiek, deialdi honen antolatzaileak inolako kalterik gabe utziz. Nolanahi den ere, edozein parte-hartzaile baztertu ahalko dute haren jokabidea (edo harekin zerikusia dutenena) antolatzaileen eta Bizkaia Open Future\_ programaren ospearen kontrako bada. Halaber, eskubidea izango dute edozein parte-hartzaile ez onartzeko beren ustez ez badiete erantzun egokirik ematen ezarritako erronkei edota onartutako proiektu kopuruari, nahiz beste edozein arrazoirengatik.

## 7. Hautagaitzak aurkeztea

Erronkan parte hartu nahi duten ekintzaile, startup, ETE, antolakunde edo erakundeek -esate baterako unibertsitateek, zentro teknologikoek, etab. - beren hautagaitza aurkeztu beharko dute ezarritako mekanismo elektronikoak erabiliz, hurrengo helbidean: <https://www.openfuture.org>.

Dagokion parte-hartze formularioa bete beharko dute, izen-ematearekin batera eskatzen zaion edo interesgarritzat jotzen duen informazio guztia erantsiz.

Hautagaiak aurkezteko epea **2016ko abenduaren 14an hasiko da** eta **2017ko otsailaren 27an amaituko da**, 18:00etan (GMT+1).

Argibide gehiago hemen: [bizkaiaopenfuture@telefonica.com](mailto:bizkaiaopenfuture@telefonica.com)

## 8. Ebaluatzeko irizpideak

Oinarri hauetan agertzen diren arazoak konpontzen lagunduko duten konponbideak bilatzen dira, prebentzio, diagnostiko eta segimendu asistentzialaren prozesuari dagokionez, zatika nahiz osorik, Industria 4.0, Gauzen Internet, Big Data, Zibersegurtasun, 3 D Inprimaketa edo Fabrikazio Eranskor, Robotika, Errealitate Birtual, Errealitate Handitu, Wearables, eta antzeko teknologietan oinarriturik.

Konponbideak denboran mantendu ahalko dira, bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea izan behar dute helburu, eta osasun sistemaren esku-hartzea gutxitu behar dute.

Zehazki, OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-ek (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) proposamen bakoitzaren hurrengo gaiak balioztatuko ditu soilik parte-hartzaileek beren hautagaitzan erantsi duten informazioan oinarrituta.

- **Egokitasuna:** Kontuan hartuko da orain dagoenaren alternatiba izatea, ideiak orain dagoenaren aldean abantaila ekartzea eta ideiak ezarritako erronkari konponbidea ematea.
- **Inpaktua:** Kontuan hartuko da osasunaren emaitzetan hobekuntza ekartzea, biztanleriaren beste segmentu/patologia/jardute-eremutara eskalagarria izatea, ezartzearen ondorioz epe ertain/luzean aurrezkoa sortu ahal izatea, produktu edo zerbitzu bat sortzearen ondorioz itzulkin ekonomikoak sortzea, gaixo/senideengan inpaktua izatea, profesionalengan inpaktua izatea, edo gaixoaren eta bere inguruaren gizarte baldintzak hobetzea.
- **Ezarketaren egingarritasuna:** Kontuan hartuko da espero den aldaketaren kudeaketa (antolaketa, aldaketak, ohiturak...), garatzeko beharko den denbora, ezartzeko aurreikusten den abiadura eta arriskua/ziurgabetasuna.
- **Bideragarritasun ekonomikoa:** Kontuan hartuko da proiektuak finantzaketa behar duen ala ez eta proiektuak kanpoko finantzaketa edukitzea.

## 9. Aukeratzeko prozesua

Proiekturik onenak aukeratzeko, Ebaluatze Batzordea osatuko da Bizkaia Open Future\_ eta OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces-eko (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) ordezkariekin, eta batzorde horrek jasotako proposamenen lehenengo ebaluaketa egin ondoren aurre-aukeraketa egingo du.

Aurre-aukeratuta gelditzen diren proiektuekin banakako elkarrizketak egingo dira, online edo telefono bidez, Ebaluatze-Batzordeak proposatutako konponbideari eta talde sustatzaileari buruz informazio gehiago izan dezan.

Bizkaia 4.0 Immersion Trip-en parte hartzeko aukeratuta gelditzen diren proiektuei horren berri emango zaie posta elektronikoz **2017ko martxoaren 16an**.

Bizkaia 4.0 Immersion Trip egin ondoren (2017ko martxoaren 29, 30 eta 31n dago aurreikusita) aukeratutako proiektuek beste bi aste izango dituzte beren konponbideak garatzeko eta berriro bidaltzeko. Konponbidea Demoday birtual batean defendatuko da **2017ko apirilaren 18an**.

Orduan Ebaluatze-Batzordeak Irabazlea eta Finalistak nor diren erabakiko du. Emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira **2017ko apirilaren 28an**.

Adierazitako datak aurreikuspenekoak dira eta beharrezkoa izanez gero aldatu egin litezke.

Proiektua aztertu eta ebaluatzeko, parte-hartzaileek baimena ematen diete antolatzaileei Ebaluatze-Batzordeko kideei deialdi honen parte hartzearen ondorioz parte-hartzaileak emandako ideiak, dokumentazioa eta informazioa emateko.

## 10. Jabetza industrial eta intelektual

Proiektua eta haren ondorioz sor litezkeen patenteen jabetza hautagaitza aurkeztu duen pertsona edo enpresarena izango da. "Bizkaia Open Future\_ OSI Ezkerraldea Enkarterri Cruces (Gurutzetako Unibertsitate-Erietxea) erronka"-n parte hartzeak ez du esan nahi hautagai den pertsona edo enpresak ekimena sustatzen duen pertsona edo enpresari ezta enpresa erreferenteari partaidetza uzten dionik.

Halaber, parte-hartzaileek, deialdi honetan parte hartzeagatik, onartu egiten dute antolatzaileek beren izena, startuparena, eta dagozkien irudi edota logoak erabil ditzaketela, edozein bidetatik eta soilik korporazio, publizitate eta sustapen helburuetarako, edota irabazi duen proiektua gainerako parte-hartzaileei eta jende orori ezagutarazteko, lurralde eta denborari dagokienez inolako mugarik gabe eta haien alde inolako ordainketarik sortu gabe.

## 11. Azken kontsiderazioak

Erronka hau aldatu, eten, indargabetu edota bertan behera utzi ahalko da horretarako arrazoirik egongo balitz. Halaber, antolatzaileek onura guztiak edo batzuk eman gabe uzteko eskubidea izango dute, Ebaluatze Batzordearen arabera aurkeztutako proiektu batek ere ez badu merezi finalista edo irabazlea izatea.